UROLA ERDIKO
Zerbitzu Mankomunitatea
Mancomunidad de Servicios
DEL UROLA MEDIO

azpeitia
udala

| | |
|---|---|
| **AZPEITIKO UDALERRIAN KOMUNITATE-ONGIZATEKO ETA INGURUMENEKO PROGRAMAK EGITEKO KONPENTSAZIO EKONOMIKOA AZPEITIKO UDALARI EMATEKO UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEAREN ETA AZPEITIKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZAKO HITZARMENAREN ERANSKINA.** | **ADENDA AL CONVENIO DE LA MANCOMUNIDAD DE UROLA ERDIA Y EL AYUNTAMIENTO DE AZPEITIA PARA LA CONCESIÓN DE COMPENSACIÓN ECONÓMICA AL AYUNTAMIENTO DE AZPEITIA PARA EL DESARROLLO DE PLANES, PROYECTOS Y PROGRAMAS DE CARÁCTER MEDIOAMBIENTAL EN EL MUNICIPIO DE AZPEITIA.** |
| Azpeitian, 2016ko azaroaren 15ean.<br><br>**ELKARTUTA**<br><br>Alde batetik, Aitor Bereziartua Larrañaga jauna, Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakaria, Urola Erdiko Lapatx Zabortegia, SAren Administrazio Kontseiluko Lehendakaria, eta Ingurugiro Etxea Fundazioaren Lehendakaria Mankomunitatearen Batzar Nagusiak 2016ko uztailaren 21eko hartutako erabakiaren eta sozietatearen Administrazio Kontseiluak 2016ko uztailaren 22an hartutako erabakiaren indarrez.<br><br>Beste aldetik, Eneko Etxeberria Bereziartua jauna, Azpeitiko udaleko Alkate Lehendakaria, 2016ko urriaren 4ko osoko bilkuran hartutako erabakiaren indarrez.<br><br>Urola Erdiko Lapatx Zabortegia SAk entitate instrumental gisa parte hartzen du Hitzarmen honetan, bertan zehaztutakoa ezartzen diren eskubideak eta obligazioak bere gain hartzeko. | En Azpeitia, a 15 de noviembre de 2016.<br><br>**REUNIDOS**<br><br>De una parte, el Sr. D Aitor Bereziartua Larrañaga, en calidad de Presidente de la Mancomunidad del Urola Medio, de Presidente del Consejo de Administración de Urola Erdiko Lapatx Zabortegia, S.A y de la Fundación Ingurugiro etxea actuando en virtud de acuerdo adoptado por la Asamblea General de la Mancomunidad de fecha 21 de julio de 2016, y de acuerdo del Consejo de Administración de la sociedad de 22 de julio de 2016.<br><br>De otra, el Sr. D. Eneko Etxeberria Bereziartua, en calidad de Sr. Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Azpeitia, actuando en virtud de acuerdo plenario de 4 de octubre de 2016.<br><br>Urola Erdiko Lapatx Zabortegia, S.A. interviene en el presente Convenio como entidad instrumental encargada de asumir y tener presentes los derechos y obligaciones que en el mismo se determinan. |

| ARI DIRA | ACTÚAN |
|---|---|
| Nor bere karguko eginkizunak betez, eta elkarri Hitzarmen hau egiteko gaitasun osoa aitortuz, eta horretarako | Todos ellos en el ejercicio de las funciones propias de sus cargos, reconociéndose mutua y plena capacidad para el otorgamiento del presente Convenio, y al efecto, |
| **ADIERAZTEN DUTE** | **EXPONEN** |
| **LEHENENGOA.** 2015eko abenduan, Urola Erdiko Mankomunitateak Hitzarmena gauzatzeko eginbideak hasi zituen. Hitzarmen horren helburua honako hau zen: Azpeitiko Udalari konpentsazioa ematea ingurumen izaera duten eta herritarren ongizaterako diren planak, proiektuak eta programak garatzeko. Izan ere, Urola Erdiko Mankomunitateak hondakinen tratamendurako eta kudeaketarako ematen dituen zerbitzu nagusiak Azpeitiaren lurraldean garatzen dira, eta zerbitzu horiek dira, hain zuzen ere, eragin handiena dutenak ura, lurzorua eta airearen kalitateari begira. | **PRIMERO.** La Mancomunidad de Urola Erdia inició en diciembre de 2015 los trámites necesarios para la formalización de Convenio para la concesión de compensación para el desarrollo de planes, proyectos y programas de bienestar comunitario y de carácter medioambiental al Ayuntamiento de Azpeitia, en cuyo ámbito territorial se desarrollan los principales servicios de gestión y tratamiento de residuos prestados y gestionados por la Mancomunidad del Urola Medio y los que producen, además, un mayor impacto en la calidad del aire, del suelo y del agua. |
| **BIGARRENA.** Hondakinen arloak dakartzan arazoen hedapena dela, ingurumeneko ordenamendu juridikoa zatituta dagoela eta antolakuntza- zein eskumeneko egitura konplexua dela, Urola Erdiko Mankomunitateak, Urola Erdiko Lapatx Zabortegia SAk eta Azpeitiko Udalak kontuan hartzen dute elkarlanean aritu behar direla Urola Erdiko Mankomunitateak dituen helburuak, hauek dira, Mankomunitateko udalerrien tokiko garapena eta biztanleriaren ongizatea bermatzearren eta ingurumeneko zerbitzu publikoak emateko udal eskumena eraginkorrez uztartzearren, Azpeitiko biztanleriak dituen ingurumen egokiaz gozatzeko, bere intimitatea errespetarazteko eta klima aldaketaren aurrean egokitze eta murrizteko neurriak hartzeari ekin diezaioten. | **SEGUNDO.** Dada la expansión propia de la problemática de los residuos, la sectorización que caracteriza al ordenamiento jurídico ambiental y la compleja estructura organizativa y competencial, la Mancomunidad de Urola Erdia, Urola Erdiko Lapatx Zabortegia S.A. y el Ayuntamiento de Azpeitia consideran que deben coordinarse para que puedan garantizarse y armonizarse de forma eficaz los fines de la Mancomunidad, esto es, el desarrollo local de los municipios que integran la Mancomunidad y el bienestar de su ciudadanía con la competencia municipal de prestación de los servicios públicos medioambientales dirigidos a garantizar el derecho de la población del municipio de Azpeitia al medio ambiente adecuado, al respeto de su intimidad y a que se establezcan las necesarias determinaciones de adaptación y mitigación ante el cambio climático. |

| | |
|---|---|
| **HIRUGARRENA.** Alderdion iritziz, udalerrian programak, jarduerak eta zerbitzuak elkarrekin ematea eta kudeatzea bide egokia da helburu hori lortzeko, estatutuen 5. artikuluarekin bat etorrita, eta apirilaren 7ko 2/2016 Euskadiko Tokiko Erakundeei buruzko Legearen 100. artikuluari men eginez. Hori dela eta, Hitzarmenaren eranskin hau gauzatzea erabaki dute, azaroaren 26ko 30/1992 Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 88. artikuluaren eta ingurumen- araudiaren babesean. | **TERCERO**. Las partes consideran que la prestación y gestión compartida de programas, actividades y servicios de naturaleza medioambiental compensatoria en el municipio de Azpeitia, de conformidad con lo previsto en el artículo 5 de los estatutos y el artículo 100 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi constituyen un cauce adecuado para ello y han decidido formalizar esta Adenda al amparo del artículo 88 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común y de la normativa medioambiental. |
| **LAUGARRENA**. Urola Erdiko Lapatx Zabortegia SAk, Urola Erdiko Mankomunitatearen bitarteko sozietateak, bere baitan agertuko ditu hondakinen kudeaketaren gastuak eta zuzenduko du bere jarduera onartzen diren ingurumen-, komunitate-, ongizate- eta tokiko garapenari buruzko politiketara zein tokiko merkataritzako, ingurumeneko eta korporazio-erantzukizuneko xedapen zein hitzarmenetara. | **CUARTO**. Urola Erdiko Lapatx Zabortegia S.A, medio propio e instrumental de la Mancomunidad de Urola Erdia, internalizará los costes medioambientales de gestión de residuos y ajustará su actividad a las políticas medioambientales, de bienestar comunitario y de desarrollo local que sean aprobadas y a las disposiciones y acuerdos locales, mercantiles, medioambientales y de responsabilidad corporativa aplicables. |
| **BOSGARRENA.** Eranskin honen helburua da zerbitzu, jarduera, eta programen zerrenda Hitzarmenean eranstea. Toki erakunde biren elkarlanerako esparrua zehaztuko da horietan guztietan, zerbitzu, jarduera eta programak elkarrekin eman eta kudeatzeari begira. Horretaz gain, aldatuko da hitzarmenak aurreikusten duen zeharkako kostuak zuritzeko modua. Era berean, hitzarmena bera egokituko da Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen xedapenetara, LANKIDETZA HITZARMENA artikulatuz. Honako hauek dira hitzarmenaren | **QUINTO**. El objeto de la presente Adenda es incorporar al Convenio la relación de programas, actividades y servicios y, dentro cada uno de ellos, determinar el marco de colaboración de ambas entidades locales para su prestación y gestión compartida, suprimir la forma de justificación de los costes indirectos prevista en el Convenio y adaptar éste a las disposiciones de la nueva Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi articulando un CONVENIO DE COOPERACIÓN, que se regirá por las siguientes |

| KLAUSULAK | CLÁUSULAS |
|---|---|
| **Lehenengoa. Xedea.** | **Primera. Objeto** |
| Urola Erdiko Mankomunitateak, Urola Erdiko Lapatx Zabortegia SAk eta Azpeitiko Udalak hitzartu dute, elkarrekiko kudeaketa amankomunari begira, Hitzarmenean eranstea honako programa, jarduera eta zerbitzuen zerrenda: | La Mancomunidad de Urola Erdia y el Ayuntamiento de Azpeitia acuerdan incorporar al convenio y aprobar la siguiente relación de programas, actividades y servicios para su gestión compartida: |
| **I. LAPATX ZABORTEGIA IXTEKO LANETAN ETA ITXI OSTEKO ZAINTZA-LANETAN GIZA BALIABIDEAK ESKU HARTZEKO PROGRAMA.** | **I. APORTACIÓN DE MEDIOS PERSONALES EN LAS OPERACIONES DE CLAUSURA Y VIGILANCIA POST CLAUSURA DEL VERTEDERO LAPATX.** |
| Azpeitiko Udalak eta Urola Erdiko Mankomunitateak aintzakotzat hartzen dute Udalaren laguntza teknikoa, eta administrazio biren giza baliabideak zein bitarteko koordinatzea honako helburu honetarako: Lapatx Zabortegia ixteko eta itxi ondorengo zaintza ondo gauzatzeko. | La Mancomunidad del Urola Medio y el Ayuntamiento de Azpeitia estiman precisas tanto la colaboración técnica municipal como la coordinación de los medios humanos y materiales de ambas administraciones para el buen fin de las operaciones de clausura y vigilancia post clausura del vertedero Lapatx. |
| Zehazki, hirigintza zein ingurumen arloetako udal langileek esku hartuko dute ondoren zerrendatzen diren prozeduratan: | En particular, los medios personales de las áreas de urbanismo y medio ambiente municipal tomarán parte en los siguientes procedimientos: |
| 1) Lanen kontratazio-prozedurak: Ekarritako giza-baliabideak kontratuen erantzule izango dira, eta kontratazio-mahaietako kide izango dira kontratazio-prozedura horiek lotuta badaude proiektuen kontratazioarekin, lanen exekuzioarekin, zuzendaritzarekin, ikuskapenarekin edo zabortegia itxi ondorengo zaintza-fasearekin. Langile horiek kontratazio-organoak eskatutako txostenak idatziko dituzte, eta zuinketa egiaztatzeko zein lanak onartzeko agerraldietan esku hartuko dute. | 1) Procedimientos de contratación de obras: los medios personales aportados formarán parte de las mesas de contratación de todos los procedimientos relacionados con la contratación de los proyectos, de la ejecución y dirección y supervisión de las obras y de la fase de vigilancia post clausura del vertedero, serán responsables de los contratos y redactarán los informes que les sean solicitados por el órgano de contratación. Asistirán a los actos de replanteo y de recepción de las obras. |

| | |
|---|---|
| 2) Zabortegi itxi ondorengo zaintza-lanei dagokienez, ekarritako giza-baliabideek fase honetako jarduera, helburu eta lanen gaineko segimendua egingo dute honako helburu honekin: udalerrian ingurumen-babesa handiagoa lortzea. Era berean, langile horiek esku hartuko dute zaintza-planetik edo ingurumen kudeaketarako sistematik eratorritako prozedura eta praktiketan. | 2) Procedimiento medioambiental de vigilancia post clausura: los medios personales aportados efectuarán seguimiento de las actividades, objetivos y obras de esta fase para asegurar una mayor protección medioambiental municipal e intervendrán en los procedimientos y prácticas derivados del plan de vigilancia o sistema de gestión ambiental. |
| 3) Ingurumen ikuskaritzako prozedurei dagokienez, inplikatutako langileek ingurumen kudeaketako sistemaren ebaluazio-prozeduretan esku hartuko dute, eta horretarako datuak emango dituzte, bai zabortegia ixteko jardunbidean eta itxi osteko zaintza-lanetan, baita zentroa birsortzeko prozesuan. Hauek izango dira ingurumen ikuskaritzaren helburuak: ingurumen-arazo nagusiak baloratzea, elementu kutsatzaileen gaineko datuak eskaintzea eta ingurumeneko errendimenduarekin lotutako faktoreak deskribatzea. | 3) Procedimientos de auditoría ambiental: los medios personales aportados tomarán parte y proporcionarán los datos necesarios en los procesos de evaluación del sistema de gestión medioambiental, tanto de las operaciones de clausura y vigilancia post clausura como en el proceso de reconversión del centro. La auditoría ambiental tendrá por objeto valorar los problemas ambientales significativos, ofrecer datos sobre la emisión de contaminantes, describir los factores relacionados con el rendimiento ambiental. |
| Ingurumen auditoriaren emaitzek erraztuko dute jardueraren sustatzailearen kontrola, eta udal entitatearen kontrola prozesuen gainean. Halaber, emaitza horietaz baliatuz ebaluatuko dira ingurumen-programa eta politikak egokiak diren, eta ingurumen kudeaketako praktikak zein sistemak. | Los resultados de la auditoría ambiental facilitarán el control por la promotora de la actividad y por la entidad municipal de los procesos y evaluarán la adecuación de las políticas y programas ambientales, los sistemas y las prácticas de gestión medioambiental. |
| 4) Klima proiektuak edo analogoak diren beste batzuk egitea. | 4) Elaboración de proyectos clima u otros análogos. |
| 5) Lapatx zabortegiko hondakinen balorizazioa bideragarria den aztertzeko txostenak egitea. | 5) Elaboración de estudios de viabilidad de la valorización de residuos del vertedero Lapatx. |

| | |
|---|---|
| **II. LAPATX HONDAKINEN KUDEAKETARAKO INGURUMEN ZENTROA BERRIZTEKO, BIRMOLDATZEKO ETA ONERA EKARTZEKO GIZA BALIABIDEAK PARTE HARTZEKO PROGRAMA.** | **II. INTERVENCIÓN DE LOS MEDIOS PERSONALES EN EL PROCESO DE RECONVERSIÓN, RENOVACIÓN Y REGENERACIÓN DEL CENTRO MEDIO AMBIENTAL DE GESTIÓN DE RESIDUOS LAPATX.** |
| Hondakinen kudeaketarako Ingurumen Zentroan zerbitzu eta jarduera berriak ezartzeko beharrezkoak diren txostenak Urola Erdiko Mankomunitateak bultzatuko ditu, Urola Erdiko Lapatx Zabortegia SAren bidez. Era berean, Mankomunitateak proiektuak idazteko zerbitzu-kontratuak eta lanak egitekoak egingo ditu, kanpoko kontratazioen bidez. | La Mancomunidad de Urola Erdia, a través de Urola Erdiko Lapatx Zabortegia S.A, impulsará los proyectos, estudios que resulten necesarios para la implantación de los nuevos servicios y actividades públicas autorizadas por la autorización ambiental integrada en el centro medioambiental de gestión de residuos y efectuará las contrataciones externas de servicios de redacción de proyectos y de obras oportunos. |
| Azpeitiko Udalak ekarritako giza-baliabideek, kontratazioak prestatzeko bileretan eta kontratazio-mahaietan esku hartuko dute. Horretaz gain, kontratazio-organoak eskatzen dizkien hirigintza- zein jarduera-txostenak idatziko dituzte. | Los medios personales aportados por el Ayuntamiento de Azpeitia asistirán a las reuniones preparatorias, formarán parte de las mesas de contratación de todos los procedimientos y elaborarán cuantos informes urbanísticos y de actividades les sean solicitados por el órgano de contratación. |
| Azpeitiko Udalak partizipazio handiena duenez Ingurugiro Etxea Fundazioan, erakunde horretako langileek parte hartuko dute aurreko prozeduretan. | La Fundación Ingurugiro etxea, participada mayoritariamente por el Ayuntamiento de Azpeitia, también tomará parte en los procedimientos anteriores. |
| Azpeitiko Udalak ekipamendu berezietan (ibilgailuetan, hala balegokio) edo beste edozein bitartekoen inbertsioak finantzatuko ditu neurketak egiteko eta laginak hartzeko (solidoak, gaseosoak zein likidoak). | El Ayuntamiento de Azpeitia financiará inversiones en equipos, vehículos, en su caso, con equipamiento especial para efectuar mediciones y toma de muestras, tanto sólidas como líquidas y gaseosas, así como cualesquiera otros medios materiales. |
| I. eta II. puntuetan deskribatutako programen exekuziorako EHUN ETA BERROGEITA HAMAR MILA euroko zuzkidura ezartzen da (150.000 euro). | Para la ejecución de los Programas descritos en los puntos I y II se establece una dotación de CIENTO CINCUENTA MIL EUROS (150.000 €). |

| | |
|---|---|
| **III. HIRIGINTZAKO ANTOLAMENDUAREN ALDAKETA.** | **III. MODIFICACIÓN DE LA ORDENACIÓN URBANÍSTICA.** |
| Azpeitiko Udalak duenez hirigintza-arloko eskumena, beharrezkoak izango diren hirigintzarekin lotutako agiri guztiak formulatu, izapidetu eta bultzatuko ditu, adibidez, honako hauek: Hiri-antolamendurako Plan Nagusiaren xedapen-aldaketa, antolamendu xehatuko planak, eta hala badagokio, birpartzelazio-proiektuak, xehetasun-azterketak, urbanizazio-proiektuak, baldin eta beharrezkoak badira agiri horiek ingurumen zentroaren eremuko hirigintza-antolamendua zehaztu eta exekutatzeko. | El Ayuntamiento de Azpeitia, titular de la potestad urbanística, formulará, tramitará e impulsará los oportunos documentos urbanísticos que fuesen necesarios, tales como la modificación puntual del Plan General de Ordenación Urbana, planes pormenorizados y, en su caso, proyectos de reparcelación, estudios de detalle o proyectos de urbanización y demás que resulten necesarios para definir y ejecutar la ordenación urbanística del ámbito del centro medioambiental. |
| Planeamendu orokorra aldatzeko tresnak derrigor ekarri behar izango du klima-aldaketaren gaineko txosten espezifikoa. | El instrumento de modificación del planeamiento general deberá incluir un estudio específico sobre afección al cambio climático. |
| Hasierako eta behin betiko tresnak onartu aurretik, Azpeitiko Udalak kopia eta txostena emango dizkio Lankidetzarako Hitzarmenaren segimendu-batzordeari, eta batzorde horren Presidenteak horien berri emango dio Urola Erdiko Mankomunitatearen Batzar Nagusiari. | Con carácter previo a la aprobación inicial y definitiva de los instrumentos, dará copia e informe a la Comisión de Seguimiento del Convenio, la cual los elevará a la Asamblea General de la Mancomunidad del Urola Medio, por conducto de su Presidencia. |
| Plangintza- edo kudeaketa-hitzarmenak zein tresnak onartzeko udal akordioak jakinaraziko zaizkie honako hauei: Urola Erdiko Mankomunitateari, Urola Erdiko Lapatx Zabortegia SAri, eta Mankomunitatearen kide diren udalei. | Los acuerdos municipales de aprobación de los convenios e instrumentos de ordenación y gestión serán notificados a la Mancomunidad de Urola Erdia, a la sociedad pública Urola Erdiko Lapatx Zabortegia S.A y a los Ayuntamientos de los municipios mancomunados. |
| Horri begira, BERROGEITA HAMAR MILA euroko zuzkidura aurreikusten da (50.000 euro). | Se establece una dotación de CINCUENTA MIL EUROS (50.000 €). |

| | |
|---|---|
| **IV. LAPATX HONDAKINEN KUDEAKETARAKO INGURUMEN ZENTROA BERRIZTU, BIRMOLDATU ETA BIRSORTZEAREKIN LOTUTAKO INGURUMENAREN ALDEKO INBERTSIOAK ETA LANAK.** | **IV. INVERSIONES EN OBRAS Y SERVICIOS VINCULADOS A LA RECONVERSIÓN, REGENERACIÓN Y RENOVACIÓN DEL CENTRO MEDIO AMBIENTAL DE GESTIÓN DE RESIDUOS LAPATX.** |
| Urola Erdiko Mankomunitateak, erabiltzaileen sarbidea errazteko Zentrora, eta Lapatx Hondakinen Kudeaketarako Ingurumen Zentroan emandako zerbitzuen kalitatea hobetze aldera, inbertsio jasangarri hauek finantzatuko ditu: | La Mancomunidad del Urola Medio, con el fin de facilitar el acceso al centro por las personas usuarias y mejorar la calidad de los servicios prestados en el centro medio ambiental de gestión de residuos Lapatx financiará las siguientes inversiones sostenibles: |
| 4.1 Oinezkoentzako guneak zein bidegorriak egiteko obrak, industria-poligono eta bizitegi-guneetatik. | 4.1 Obras de peatonalización y de bidegorris desde polígonos industriales y áreas residenciales. |
| 4.2 Auditoria energetikoak, energia-eraginkortasuna lortzeko inbertsioak eta argiteria berriztea. | 4.2 Auditorías energéticas, inversiones de eficiencia energética y actualización del alumbrado. |
| 4.3 Azpiegitura berdeak (hesiak, arbolak). | 4.3 Infraestructuras verdes (setos, árboles). |
| 4.4 Karbonoko sumidero publikoak. | 4.4 Sumideros públicos de carbono. |
| 4.5. Udalerriko garraio-sistema hobetzea. | 4.5 Mejoras en el servicio de transporte público municipal. |
| 4.6 Garbiketa sistematan hobekuntzak egitea. | 4.6 Mejoras en los servicios de limpieza. |
| 4.7 Desinfektatzeko eta intsektuak hiltzeko sistemak hobetzea. | 4.7 Mejoras en los servicios de desinfección y desinsectación. |
| 4.8 Azkoitia eta Azpeitiak erabilitako aintzineko zabortegiko lurzoruaren deskontaminazioa (37.707,26 m²), lurraren kalitatearen deklarazioak ezarritako moduan. Gune hori oraingo zabortegiaren alboko pasabidea da, eta Lapatx Hondakinen Kudeaketarako Ingurumen Zentroan bertan kokatuta dago. | 4.8 Descontaminación del suelo del antiguo vertedero (37.707,26 m²) utilizado por los municipios de Azkoitia y Azpeitia, zona de paso contigua al actual vertedero ubicado en el propio centro medioambiental de gestión de residuos Lapatx en la forma prevista por la declaración de calidad del suelo. |

| | |
|---|---|
| 4.9 Landeta eta Orendaundi poligonoetako lurzoruak berriztatzea eta berreskuratzea, lurraren kalitateari buruzko deklarazioak ezarritako moduan. Poligono horiek, hurrenez hurren, Zentro publikoaren 600 eta 750 metrotara daude. | 4.9 Restauración y recuperación de suelos de los polígonos Landeta (a 600 metros), Orendaundi (a 750 metros) en la forma prevista por la declaración de calidad del suelo. |
| 4.10 Lurren kalitatea kontrolatzeko udal politikak, lurzoruen kutsaduraren prebentzioa, zuzenketa eta berreskurapena eta zentroko hondakinak balorizatzea udalerriko eremu kutsatu eta hondatuak berrerabil daitezen. | 4.10 Políticas municipales de control de calidad de los suelos, prevención y corrección de la contaminación, de recuperación de los suelos y de restauración de las zonas contaminadas y degradadas mediante residuos reutilizados y valorizados del centro. |
| 9. eta 10. zenbakietan, Urola Erdiko Mankomunitateak, Urola Erdiko Lapatx Zabortegia SAk eta Azpeitiko Udalak ez dute bere gain hartuko, inolako kasuan eta salbuespenik gabe, hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko legeriak kutsaduraren sortzaileari edo horren ordezko erantzuleei ezartzen dizkien betebeharrak. | En los apartados 9 y 10, la Mancomunidad de Urola Erdia, Urola Erdiko Lapatx Zabortegia S.A y el Ayuntamiento de Azpeitia no asumirán, en ningún caso y sin excepción, las obligaciones impuestas por la legislación de residuos y suelos contaminados a la persona causante de la contaminación o a las personas responsables subsidiarias. |
| Jarduera horiek burutzeko HIRU MILIOI LAUREHUN ETA LAROGEITA HAMABOST MILA euroko zuzkidura aurreikusten da (3.495.000 euro). | Se establece una dotación de TRES MILLONES CUATROCIENTOS NOVENTA Y CINCO MIL EUROS (3.495.000 €). |
| **V. KLIMA-ALDAKETAREN AURKAKO PLANA.** | **V. PLAN CONTRA EL CAMBIO CLIMÁTICO.** |
| Azpeitiko udalak Plan Klimatikoa egingo du, berotegi-gasen isurketak murrizteko beharrezko diren politikak artikulatzeko. Udalak lortuko ditu horretarako datuak iturri hauetatik: hirigintzatik, Tokiko Agenda 21 programatik, eta Urola Erdiko Lapatx Zabortegia SAren zerbitzu teknikoengandik. | El Ayuntamiento de Azpeitia impulsará la formulación de un Plan Climático, articulando las políticas que sean necesarias para reducir las emisiones de gases de efecto invernadero (GEI) integrando los datos desde el urbanismo, desde la AL21 y desde los servicios técnicos de la sociedad pública Urola Erdiko Lapatx Zabortegia S.A. |

| | |
|---|---|
| Moldaera-egokitzapenak eta estrategiak ingurumen-kalteak medeatzeko, hirigintza antolamenduaren bidez ezarriko dira (III zatian azaldu den moduan) edo honako programa hauen bidez: tokiko akziorako planak, Tokiko Agenda 21 egitasmoa, VI. eta VIII puntuan deskribatutako inbertsioak, lanak eta zerbitzuak emanez, eta Urola Erdiko Mankomunitatearen programen bidez. | Las estrategias y medidas de adaptación y mitigación se implementarán través del planeamiento urbanístico (tal y como se menciona en el apartado III) así como en los planes de acción local, Agenda Local 21, en la ejecución de las inversiones en obras y servicios descritos en los apartados VI y VIII y en los programas de la Mancomunidad del Urola Medio. |
| Urola Erdiko Mankomunitateak eta Urola Erdiko Lapatx Zabortegia SA sozietate publikoak neurriak hartuko dituzte Plan horren ondorioz sortutako emisioak murrizteko. | La Mancomunidad del Urola Medio y la sociedad pública Urola Erdiko Lapatx Zabortegia S.A adoptarán las medidas necesarias para la reducción de emisiones que resulten de dicho Plan. |
| Plan Klimatikoak diagnostiko berezia egingo du, mapa batekin eta beharrezko diren neurriekin helburu hauek erdiesteko: airearen kalitatea eta kirats-kontaminazioa hobetzea. Helburu horretarako, BERROGEITA BOST MILA euroko zuzkidura aurreikusten da (45.000 euro). | El Plan contendrá un diagnóstico específico, mapa y las medidas necesarias para la mejora de la calidad del aire y la contaminación odorífera. Se establece una dotación de CUARENTA Y CINCO MIL EUROS (45.000 €). |
| Urola Erdiko Mankomunitateak eta Urola Erdiko Lapatx Zabortegia SAk beharrezkoak diren neurri guztiak hartuko dituzte honako helburuari begira: Azpeitiko Udalak onartu dituen isurketak murrizteko konpromisoak betetzea. | La Mancomunidad del Urola Medio y Urola Erdiko Lapatx Zabortegia S.A adoptarán las medidas necesarias para alcanzar los compromisos de reducción de emisiones que apruebe el Ayuntamiento de Azpeitia. |
| **VI. BIDERAGARRITASUNAREN AZTERKETAK ETA PROIEKTU KLIMATIKOAK.** | **VI. ESTUDIOS DE VIABILIDAD Y PROYECTOS CLIMÁTICOS** |
| Udal langileek eta Urola Erdiko Lapatx Zabortegia SAren zerbitzu teknikoek honako ardura hau izango dute: zabortegiko hondakinak balorizaziorako bideragarritasun-txostena, ustiapen- eta abian jartzeko planak, eta energiaren salmentaren gaineko azterketak idaztea. Zabortegian dauden hondakinez baliatuz energia berriztagarria produzituko da Azpeitiko Udalaren instalazio publiko zein pribatuei begira. | El personal técnico municipal y los servicios técnicos de Urola Erdiko Lapatx Zabortegia S.A serán los responsables técnicos del estudio de viabilidad de servicio de valorización de residuos del vertedero y producción de energía renovable con destino a edificios, instalaciones públicas y privadas del municipio de Azpeitia: estudio de viabilidad, plan de explotación e implantación así como de la venta de energía. |

| | |
|---|---|
| Udal langileak eta Urola Erdiko Lapatx Zabortegia SAren zerbitzu teknikoak Klima Proiektuak egiteko arduradun teknikoak izango dira. | El personal técnico municipal y los servicios técnicos de Urola Erdiko Lapatx Zabortegia S.A serán los responsables técnicos de la elaboración de proyectos clima. |
| Horren segimendua Zentroko langileek egingo dute, prestakuntza berezia emango zaielarik. | El seguimiento se efectuará por el personal del centro, a quienes se dará formación específica. |
| Helburu horrekin, BERROGEI MILA euroko zuzkidura aurreikusten da bideragarritasunaren azterketa eta dagozkion proiektuak egiteko (40.000 euro). | Se establece una dotación de CUARENTA MIL EUROS (40.000 €) para la realización del estudio de viabilidad y, en su caso, proyectos. |
| **VII. AZPEITIAN HONDAKINAK BILDU ETA BERRERABILTZEKO PROGRAMA BEREZIA.** | **VII. PROGRAMA ESPECIAL DE RECOGIDA Y REUTILIZACIÓN DE RESIDUOS EN AZPEITIA.** |
| Azpeitiko Udalak kostu bidez eta 10 urtez lagako dio lokal bat Urola Erdiko Mankomunitateari. Mankomunitateak gizarteratzerako enpresei mugatutako kontratazio-prozedura egingo du lokal hori uzteko hondakinen gertuko kudeaketarako, hondakin horiek berrerabiltzeko eta saltzeko. | El Ayuntamiento de Azpeitia efectuará cesión, por plazo de diez años, a título oneroso, a la Mancomunidad de Urola Erdia de local y ésta desarrollará procedimiento de contratación reservado a empresas de inserción social para la cesión del local destinado a la realización de actividades de gestión próxima de residuos e impulsar su reutilización y puesta en venta. |
| Urola Erdiko Mankomunitateak Hondakinak Biltzeko Ordenantza aldatuko du. Horrela, sistema horren bidez hondakinak kudeatzen dituzten pertsonek eta entitate pribatuek bete behar dituzten betekizunak jasoko dira Ordenantzaren testuan. Pertsona eta entitate horiek erregistroan inskribatu beharko dira. | La Mancomunidad del Urola Medio modificará la Ordenanza de Recogida de Residuos con el fin de incorporar los requisitos que deben cumplir las personas o entidades privadas encargadas de esta forma de gestión de residuos y su registro. |
| Horretarako BERROGEI MILA (40.000 euro) euroko zuzkidura ezartzen da. | Se establece una dotación presupuestaria de CUARENTA MIL EUROS (40.000 €). |

| | |
|---|---|
| **VIII. SENTSIBILIZAZIO PROGRAMAK ETA INGURUMENAREN ALDEKO KANPAINAK.** | **VIII. CAMPAÑAS DE SENSIBILIZACIÓN E INFORMACIÓN CIUDADANAS Y DE COORDINACIÓN CON OTRAS ENTIDADES.** |
| 8.1 Komunikazio-, sentsibilizazio- eta parte hartzeko ohiko bideak honako hauek izango dira: | 8.1 Los cauces comunes de comunicación, participación y sensibilización ciudadana se desarrollarán a través de: |
| 8.1.1 Ingurumenaren alde sentsibilizatzeko eta informatzeko zerbitzuak, programak eta jarduerak Ingurugiro Etxea Museoan. | 8.1.1 Servicios, programas y actividades en el Museo Ingurugiro etxea de información y sensibilización medio ambiental. |
| 8.1.2 Tokiko Agenda 21 iniziatiban sar daitezkeen zerbitzu, programa eta jarduerak, ingurumenaren aldeko sentsibilizazio- eta informazio-kanpainekin lotutakoak. | 8.1.2 Servicios, programas y actividades AL21 relacionadas con campañas de información y sensibilización medioambiental. |
| 8.1.3 Ingurugiro etxea Fundazioaren zerbitzuak. Fundazio horretan Azpeitiko Udala da bazkide nagusia. | 8.1.3 Servicios de Ingurugiro etxea fundazioa, participada mayoritariamente por el Ayuntamiento de Azpeitia. |
| 8.1.4 Hirigintza-antolamenduaren eta hirigintza-kudeaketaren eremua. | 8.1.4 Ámbito de la ordenación y gestión urbanística. |
| 8.1.5 Lapatxeko kontsumo jasangarriaren aula. | 8.1.5 Aula de consumo sostenible de Lapatx. |
| 8.1.6 Ingurugiro Etxearen Museoa. | 8.1.6 Museo Ingurugiro etxea. |
| 8.2 Azpeitiko Udalak eta Urola Erdiko Mankomunitateak egintza konbinatu eta sinergikoak bultzatuko dituzte, beste eragile sozialekin batera (Ingurugiro Etxea Fundazioa, Iraurgi Lantzen SA eta beste batzuk). Egintza horien helburua hauxe izango da: Lapatx Hondakinen Kudeaketarako Ingurumen Zentroaren jarduerak eta zerbitzuak berriztatzea eta garatzea, efizientzia handitzea berriztagarriak ez diren baliabideak erabiltzean, zerbitzuen kudeaketan kanpo-efektu ezkorrak murriztea, eta Smart City-en zein beste batzuen estrategiako programa, jarduera eta zerbitzu konpartituak bultzatzea. | 8.2 El Ayuntamiento de Azpeitia y la Mancomunidad del Urola Medio impulsarán acciones combinadas y sinérgicas con otros agentes sociales (Fundación Ingurugiro etxea, Iraurgi Lantzen S.A y otras) con el fin de innovar y desarrollar las actividades y servicios del centro medioambiental de gestión de residuos Lapatx incrementando la eficiencia en empleo de recursos no renovables y reduciendo sus externalidades negativas en la gestión de los servicios e impulsando programas, actividades y servicios compartidos de "Smart city" u otros. |

| | |
|---|---|
| **IX. GARBIGUNE ZERBITZUA HOBETZEKO PROGRAMA.** | **IX. PROGRAMA DE MEJORA DEL SERVICIO DE GARBIGUNE** |
| Mankomunitatearen langileek (teknikariak, hezitzaileak, ikuskatzaileak); Sozietate Publikoaren beharginek; Ingurugiro etxea Fundazioaren enplegatu publikoek eta udal-langileek programa horretan esku hartuko dute, planifikazio-, programazio- eta diziplina-zerbitzuen bidez udalaren hondakinen sorrera murrizteko. | El personal de la Mancomunidad (técnicos/as, educadores/as, inspectores/as), de la sociedad pública, de la Fundación Ingurugiro etxea y el personal municipal intervendrán en dicho programa en el marco del servicio de planificación, programación y disciplina de la reducción de la producción de residuos municipales. |
| Batez ere, Azpeitiko Garbigunearen zerbitzua suspertuko da, Hondakinen Kudeaketarako Lapatx Zentroan kokatuta baitago. Lizentziak emateko eta obretako aldez aurretiko komunikazioen prozedura administratiboetan informazio- eta komunikazio-sistemak hobetuko dira, bereziki eraikuntza eta eraispeneko hondakinen kudeaketa eta bilketarekin lotuta badaude prozedura horiek. Horrela, erabiltzaileen joan-etorriak murriztu eta administrazio-tramiteak sinplifikatuko dira. | El programa tiene por objeto dotar al servicio de Garbigune de Azpeitia situado en el centro de gestión de residuos Lapatx de sistemas informáticos y telemáticos y de comunicación internos en relación con los procedimientos administrativos de licencia y comunicación previa de obras relacionados con el depósito y gestión de los residuos, de construcción y demolición y con otros servicios de gestión, evitando desplazamiento innecesarios de las usuarias y promocionando la simplificación administrativa. |
| Horri begira, HOGEITA HAMAR MILA euroko zuzkidura ezartzen da (30.000 euro). | Se establece una dotación presupuestaria de TREINTA MIL EUROS (30.000 €). |
| **X. UDALAREN KONPROMISOAK.** | **X. COMPROMISOS MUNICIPALES.** |
| Azpeitiko Udalak, hondakinen gaineko helburuak lortzeko, Mankomunitateari diru-ekarpenak egiteko konpromisoa hartzen du bere gain. Aipatutako ekarpenek finantzatuko dituzte honako inbertsio eta zerbitzu hauek, beti ere energia-efizientziaren, klima-aldaketaren aurkako eta jasangarritasunaren irizpideei lotuta: | El Ayuntamiento de Azpeitia, con la finalidad de dar cumplimiento a los objetivos comunitarios en materia de residuos, asume el compromiso de efectuar aportaciones a la Mancomunidad del Urola Medio para la financiación de las siguientes inversiones y servicios sujetos, además, a criterios de eficiencia energética, protección del cambio climático y sostenibilidad: |
| 10.1 Inbertsioak hondakinak kudeatzeko ibilgailuetan, horiek ekologikoak, jasangarriak eta efizienteak badira. | 10.1 Vehículos para la gestión de residuos ecológicos, sostenibles y eficientes. |

| | |
|---|---|
| 10.2 Erabilitako edukiontziak edota erabilitako ekipoak, edo berrerabilgarriak diren materialak. | 10.2 Contenedores y equipos de segunda mano o de materiales reutilizables. |
| 10.3 Behin bakarrik erabil daitezkeen hondakinen-poltsak erabiltzeari uzteko kanpainak. | 10.3 Campañas de eliminación de bolsas de residuos de un solo uso. |
| 10.4 Udal-hondakinak murrizteko planifikazio-, programazio- eta diziplina-zerbitzuan, herritarrenganako sentsibilizazio- eta heziketa-programak egonkortzea. | 10.4 Consolidación de los programas de sensibilización y educación dirigidas a la ciudadanía dentro del servicio público de planificación, programación y disciplina de la reducción de la producción de residuos municipales. |
| 10.5 Eraikuntza eta eraispeneko hondakinen kudeaketa Urola Erdiko Mankomunitateak Garbigune eta Hondakinen Plantaren bidez prestatzen eta kudeatzen duen zerbitzuaren ezaugarrien arabera. Ordenantza mankomunatuaren araubide juridiko eta teknikoari men egin behar zaio. | 10.5 Gestión de residuos de construcción y demolición con arreglo las peculiaridades de la gestión del servicio prestado y gestionado por la Mancomunidad del Urola Medio a través del Garbigune y de la planta de residuos y al régimen jurídico y técnico previsto en la Ordenanza mancomunada. |
| 10.6 Gaikako bilketa ahalik eta frakzio gehienetan ezartzea. | 10.6 Implantación de recogidas selectivas de mayor número de fracciones. |
| **Bigarrena. Kudeaketa-agindua Urola Erdiko Lapatx Zabortegia SAri.** | **Segunda. Encomienda de gestión a Urola Erdiko Lapatx Zabortegia S.A.** |
| Urola Erdiko Mankomunitateak kudeaketa-agindua ematen dio haren bitarteko sozietatea den Lapatx Zabortegia SAri, hitzarmen honetako I-VIII puntuetan ezarritako zerbitzu, jarduera, kudeaketa, finantzaketa eta segimenduak egin ditzan. Kudeatzeko agindutik kanpo gelditụko da VII puntuan aintzatetsitako ahalmena, erregelamenduak egiteko. | La Mancomunidad del Urola Medio encomienda a Urola Erdiko Lapatx Zabortegia S.A, medio propio e instrumental, la gestión, desarrollo, seguimiento y financiación de los programas, servicios y actuaciones establecidos en los apartados I-VIII del presente convenio, con excepción del ejercicio de potestades reglamentarias mencionado en el apartado VII. |

| | |
|---|---|
| **Hirugarrena. Hitzarmena aldatzeko araubidea.** | **Tercera. Régimen de modificaciones.** |
| Jarduerak burutzeko epea amaitu aurretik, Azpeitiko Udalak eskatu ahal izango ditu Hitzarmen honen gaineko aldaketak epeak luzatzeko, zenbateko batzuk murrizteko, beste dirukopuru batzuk handitzeko, edo jarduerak moldatzeko aurreikusi gabeko inguruabarrak gertatzen badira edo aldaketok beharrezkoak badira zerbitzua, programa edo jardueraren funtzionamendu hoberako.<br>Lankidetzarako Hitzarmenaren objektua aldatzen ez bada eta hirugarrenen eskubideak kaltetzen ez badira, eskabidea onartuko da. | El Ayuntamiento de Azpeitia podrá solicitar, antes de finalice el plazo para la realización de las actividades, modificaciones del presente convenio que supongan disminución de los importes fijados y aumentos de otros o alteración de las actividades, cuando se produzcan circunstancias imprevistas o sean necesarias para un mejor fin del servicio, programa o actividad; la solicitud será aceptada siempre que no se altere el objeto o finalidad del objeto del convenio y no se dañen derechos de terceras personas. |
| Aldez aurreko baimenik eta komunikaziorik gabeko aldaketak gertatuz gero, Urola Erdiko Mankomunitateak honako aukera hauek izango ditu: emandako justifikazioa onartu edo Hitzarmena suntsiarazi. | En el caso de producirse alteraciones sin comunicación y consentimiento previos, la Mancomunidad del Urola Medio podrá aceptar la justificación o proceder a la resolución del convenio. |
| Azpeitiko Udalari aldez aurretik komunikatuz, eta zenbatekoak aplikatu aurretik, Urola Erdiko Mankomunitateak Hitzarmena aldatu ahal izango du. Aldaketa zilegi izateko, beharrezkoak izango dira honako baldintza hauek: Hitzarmena eta eranskina egiteko kontuan hartu ziren inguruabarrak aldatzea; aldaketa horren ondorioz, interes publikoa lortzen zailtzea edo guztiz oztopatzea, eta Azpeitiko Udalari kalte ekonomikorik ez sortzea. | La Mancomunidad del Urola Medio podrá modificar el convenio, previa comunicación al Ayuntamiento de Azpeitia y antes de se haya procedido a la aplicación de las cantidades, cuando la alteración de las circunstancias tenidas en cuenta para formalizar el convenio y su Adenda impidan o dificulten la consecución del interés público perseguido y no se irroguen perjuicios económicos al Ayuntamiento de Azpeitia. |
| **Laugarrena. Justifikazioa.** | **Cuarta. Justificación.** |
| Hitzarmenean aurreikusitako zerbitzu, jarduera eta programen justifikazioa egiteko, Azpeitiko Udalak bete beharko du Hitzarmenak xedatutakoa. Hala ere, zeharkako kostuen justifikazioari dagokion paragrafoa ezabatuko da. | La justificación de la realización de los programas, actividades y servicios previstos en el presente convenio se efectuará por el Ayuntamiento de Azpeitia en la forma prevista por el Convenio salvo el apartado relativo a la justificación de costes indirectos, el cual quedará suprimido. |

| Bosgarrena. Ondare-erantzukizuna. | Quinta. Responsabilidad patrimonial. |
|---|---|
| Hitzarmen eta eranskinean aurreikusitako zerbitzu, programa zein jarduerei buruzko ondare erantzukizuna Urola Erdiko Mankomunitateari dagokio. Urola Erdiko Lapatx Zabortegia SA sozietateak, ordea, erantzun beharko du agindu zaizkion programa eta zerbitzuen kudeaketagatik. | La responsabilidad patrimonial de los servicios, programas y actuaciones previstos en el Convenio y en la Adenda corresponderá a la Mancomunidad del Urola Medio. La sociedad Urola Erdiko Lapatx Zabortegia S.A responderá de los programas y servicios cuya gestión tenga encomendada. |
| Ondare-erantzukizuneko espedienteak tramitatzea Urola Erdiko Mankomunitatearen zerbitzu tekniko zein juridikoei dagokie. Zerbitzu horiek beharrezko diren txosten guztiak eskatuko dituzte. Nolanahi ere, txosten horiek eskatuko zaizkie Azpeitiko Udal Bulego Tekniko eta Urola Erdiko Lapatx Zabortegiko teknikari arduradunei. | La instrucción de los expedientes de responsabilidad patrimonial compete a los servicios jurídicos de la Mancomunidad del Urola Medio, quienes solicitarán la emisión de los informes informes técnicos que resulten precisos y, en todo caso, a las personas técnicas responsables de la Oficina Técnica del Ayuntamiento de Azpeitia y de la sociedad pública Urola Erdiko Lapatx Zabortegia S.A. |
| Espedienteak tramitatzean alegazioak egiteko eskubidea izango du Azpeitiko Udalak, eta entzunaldiaren izapidea emango zaio. | En la tramitación de los expedientes se otorgará derecho de formulación de alegaciones y se conferirá trámite de audiencia al Ayuntamiento de Azpeitia |
| Hitzarmena suntsiarazteko proposamena Hitzarmenaren jarraipen-batzordeari komunikatuko zaio. | La propuesta de resolución será comunicada a la Comisión de Seguimiento del Convenio. |
| Prozeduraren gainean ebazteko ahalmena Urola Erdiko Mankomunitatearen Lehendakariari dagokio. | La resolución del procedimiento corresponde a la Presidencia de la Mancomunidad del Urola Medio. |

| | |
|---|---|
| **Seigarrena. Hitzarmenaren jarraipen batzorde teknikoa.** | **Sexta. Comisión Técnica de Seguimiento del Convenio.** |
| Hitzarmenaren eranskin hau sinatzean jarraipen-batzordea eratuko da. Batzorde horretan hauek bilduko dira: Urola Erdiko Mankomunitatearen Lehendakaria, Idazkari kontu-hartzailea, Lapatx Zabortegia SAren zerbitzu-arduraduna, Azpeitiko Udalaren Idazkaria eta Bulego Teknikoaren arduraduna, edo haiek eskuordetzen dituzten pertsonak. Eduki ekonomikoa duten gaiak jorratzen direnean, Azpeitiko Udaleko Kontu-hartzaileak parte hartzeko eskubidea izango du jarraipen batzordean (edo berak eskuordetutako pertsonak). Kontu-hartzaileak edo berak eskuordetutako pertsonak hitza eta botoa izango ditu. Kasu horietan, Mankomunitatearen idazkari kontu-hartzailearen botoak balio bikoitza izango du. | A la firma del presente Convenio se constituirá Comisión de Seguimiento presidida por la Presidencia de la Mancomunidad del Urola Medio e integrada por la persona Secretaria Interventora de la Mancomunidad del Urola Medio, la persona responsable de los servicios de Urola Erdiko Lapatx Zabortegia S.A, la Secretaria y la persona responsable de la Oficina Técnica del Ayuntamiento de Azpeitia o personas en quienes éstos deleguen. La Interventora del Ayuntamiento de Azpeitia o persona en quien delegue asistirá con voz y voto a todas las reuniones en las que se traten cuestiones de índole económica, en cuyo caso, el voto de la persona Secretaria-Interventora de la Mancomunidad computará doble. |
| Batzorde Teknikoak Hitzarmen honen kontura sor daitezkeen gorabehera guztiak ebatziko ditu: exekuzioa, interpretatzea, hitzarmena suntsiaraztea eta hitzarmenaren ondorioak. | La Comisión Técnica resolverá todas las incidencias que sobre ejecución, interpretación, resolución y efectos puedan surgir al amparo de este convenio. |
| **Zazpigarrena. Hitzarmenaren jarraipen batzorde teknikoaren bilerak.** | **Séptima. Reuniones de la Comisión Técnica de Seguimiento del Convenio.** |
| Ohiko bilerak bi hilabetean behin izango dira, ahal bada hilabeteko bigarren asteartean, eta bilkura bereziak egin ahal izango dira Hitzarmenaren sinatzaileetako batek hala eskatzen baldin badu. Bilera bakoitzean, Urola Erdiko Mankomunitatearen idazkariak akta labur bat idatziko du. | Se reunirá con carácter ordinario con una periodicidad bimensual, preferiblemente el segundo martes del mes, y con carácter extraordinario levantándose acta sucinta de cada una de las sesiones por la persona que desempeñe la Secretaría-Intervención de la Mancomunidad del Urola Medio. |
| Akordioak Batzordeko kideen gehiengo soilaz onartuko dira. | Los acuerdos se adoptarán por mayoría simple de las personas que la formen. |
| Urtero, Urola Erdiko Lapatx Zabortegia SAren zerbitzu-arduradunak txosten bat idatzi beharko du aurreikusitako programa, zerbitzu, eta jardueren exekuzio-egoeraren gainean. | La persona responsable de Urola Erdiko Lapatx Zabortegia S.A. elaborará informe anual detallando el estado de ejecución de cada uno de los programas, servicios y actuaciones previstos. |

| | |
|---|---|
| **Zortzigarrena. Hitzarmenaren mugak eta indarraldia.** | **Octava. Límites y plazo de vigencia.** |
| Hitzarmena eta eranskinak ez dakarte inolako eskumenen titulartasunik-lagatzea horiek sinatu dituzten toki entitateen aldetik. Programak, zerbitzuak, eta jardueren exekuzioaren xedea hauxe da: kudeaketa publikoaren efizientzia hobetzea, eta zerbitzu zein bitarteko publikoen erabilera mankomunatua sustatzea, betiere, aurrekontu-egonkortasuna eta finantza-jasangarritasunaren helburuak beteta. | El Convenio y la Adenda no suponen cesión de la titularidad de las competencias de ninguna de las entidades locales. La ejecución de los programas, servicios y actuaciones está orientada a la mejora de la eficiencia de la gestión pública, facilitar la utilización conjunta de medios y servicios públicos cumpliendo los objetivos de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera. |
| Hitzarmena eta Eranskinaren indarraldia 20 urtekoa da, horiek sinatu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. | El convenio y la Adenda tienen un plazo de vigencia determinada y definida de 20 años a contar desde su firma. |
| **Bederatzigarrena. Izaera eta araubide juridikoa.** | **Novena. Naturaleza y régimen jurídico.** |
| Hitzarmenak administrazio izaera dauka. Administrazio publikoen arteko lankidetza hitzarmenei aplikatu behar zaien antolamendu juridiko eta administratiboaren bidez arautu da haren interpretazioa eta garapena. | El presente Convenio es de naturaleza administrativa, rigiéndose en su interpretación y desarrollo por el ordenamiento jurídico administrativo aplicable a los convenios de colaboración entre administraciones públicas. |
| Hitzarmena interpretatu eta betetzerakoan gerta daitezkeen auziak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren ardurapekoak eta eskumenekoak izango dira. | Las cuestiones litigiosas que puedan surgir en su interpretación y cumplimiento serán de conocimiento y competencia del orden jurisdiccional de lo Contencioso-Administrativo. |
| **Hamargarrena. Indarrean sartzea.** | **Décima. Entrada en vigor** |
| Eranskin honek ondorioak izango ditu eta parte hartzen duten alderdiak behartuko ditu sinatzen den egunetik aurrera. Eranskina Hitzarmenean sartuko da. | La presente Adenda surte efectos y obligará a las partes intervinientes desde su firma y se incorporará al Convenio. |
| **Lankidetzarako Hitzarmena irakurri ostean alderdiok edukia berresten dute, eta konforme daudela adierazteko hiru aldiz sinatzen dute hasieran aipatutako data eta tokian.** | **Tras la lectura del presente Convenio de Colaboración, las partes otorgantes se ratifican y afirman en su contenido y, en prueba de conformidad, lo firman por triplicado en el lugar y fecha indicados en el encabezamiento.** |